



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

LESAKA

ONDASUN HIGIEZINAK BAHITZEKO IZAPIDEEN JAKINARAZPENA

Administrazio honi egotz ez dakizkiokeen arrazoiengatik Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 99.4 artikuluan xedatutakoaren arabera interesdunari edo horren ordezkariari jakinarazpena egiterik izan ez denez, eta, aipatu artikuluan xedatutakoaren arabera, egin diren jakinarazpen ahaleginak espedientean jasota, ediktu honen bidez dei egiten zaie ordainketa egitera behartuta daudenei eta horien ordezkariari aurrez aurre jakinarazteko espedientean jasotako prozeduren ondoriozko administrazio-egintzak. Agertzeko epea hamabost egun naturalekoa da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita: astelehenetik ostiralera, goizeko bederatzietatik arratsaldeko ordu bietara, bulego kudeatzailean (Iñigo Arista kalea 16, etxabea, 31007 Iruña). Epe horretan agerraldirik egin ez bada, jakinarazpena egintzat emango da, lege-ondorio guztietarako, agerraldia egiteko epea bukatu eta hurrengo egunean bertan.

Zergapekoei ohartarazten zaie: premiamenduzko prozeduraren edozein tramite jakinarazitzat jotzen denean, ez interesdunak ez haien ordezkariak agertu ez direlako, jakinarazitzat joko dela premiamenduzko prozedurak egiten diren hurrengo jarduketetan eta jardunbideetan, nahiz eta ez duten galduko beste edonoiz agertzeko eskubidea. Nolanahi ere, bahitutako ondasunak besterentzeari buruzko ebazpena, hala dagokionean, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorreko 99. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinaraziko da.

Jakinarazten den egitatea: Premiamendurako administrazio-prozedura. Ondasun higiezinak bahitzeko eginbidea. Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketarako Araudiari buruzko uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuko 113. artikuluko 2. idatzi-zatia.

Egitate horren aurka honako helegiteetako bat jar daiteke hautaz:

- a. Berraztertzeko errekurtsio, egintza eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- b. Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- c. Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Lesaka, 2019ko Abenduaren 23a.

Diru Biltzaile Exekutiboa,



Mikel Arrechea Lasaga.

INTERESADOS QUE SE CITAN

Acto que se notifica : Diligencia de embargo
Referencia : E153000/00013/2019

Expediente	Nombre	Condición en la que se citan
B31604234		DEUDOR
B31604234		DEUDOR